

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2012ko otsailaren 16a. IX. urtea. 2.361. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

Eduardo Chocano Inauterizale Kuttuna

## «Inauterietan poz horrekin gauzak eginez jarrai dezatela tolosarrek»

Eduardo Chocano tolosarra izendatuko dute gaur Inauterizale Kuttuna, hainbat urtetan inauteriei eskaini dienagatik; egun «hunkigarria» izango da berarentzat

Ume-umetatik inauterien saltsan ibilitakoa da Chocano, eta egun gazteek karrozak zer nolako arretaz egiten dituzten ikustea «oso pozgarria» dela dio 03



Eduardo Chocano Tolosako udaletxeko balkoian izango da, gaur, txupinazoa botatzerakoan. I. URKIZU

## Inbertsioetarako gastuaren parte handiena, erabilera anitzeko eraikinarentzat

Ibarrako Udaltzarak bost milioi euroko aurrekontua onartu du 2012rako; erabilera anitzeko eraikinarentzat 780.000 euro izango dira 07

### Euskal Herriko historia ezagutzeko hitzaldiak egingo dituzte Tolosan

Bai Euskal Herriari ekimenak antolatu ditu, eskualdeko hainbat udal ordezkarien laguntzarekin; parte hartzeko izena eman beharra dago 06

### Larramendiko lokaletan emango du zerbitzua aurrerantzean Gurutze Gorriak

Arkaute etxea bestelako jardueretara bideratuko du udalak; Madalen eta Uzturre kalean kokaturiko lokaletara pasatzeko akordioa sinatu dute 04

### Zigor Sagarna

Musikaria

«Herri musika sasoiko ikusten dut, batez ere dantza taldeetako musikarietan»

Sagarna Aintzina taldeko kidea da; 'Kosinatik kanberala' izeneko diskoa atera berri dute, beren ibilbideko bigarrena

Elkarrizketa 05

### Ultzamako biogas planta bisitatu berri dute eskualdeko udal ordezkariak

Iraunkortasunean oinarritutako garapen politiken aldeko apustua egin nahi du Tolosaldea Garatzenek eta bisita bide horretan antolatu du 06

## Elketa Jatetxea



### Inauterietako menu berezia

Etoko foie terrina fruitu gorriekin  
Iberiar urdaiazpikoa

Txangurro, aguakatea eta olagarroz  
eginjako entsalada epela

Onddo risottoa

Garaiko barazkiak urdaiazpikoarekin  
Zapo, ezkira eta muskuluz beteriko  
krepa, marisko saltsarekin

Legatza melatua

Txibiak pelayo erara

Txekor masailak gisatuak

Txuleta zatiak pikiloekin

Etoko tartak

Brownie-a krema ingelesarekin

Mandarinazko cava sorbeta

Kafea, etxeko kulantza, sagardoa  
eta ura barne

Prezioa: 30€  
(bez-a barne)

- Egunko menua
- Plater konbinatuak
- Asteburuko menu berezia
- Adosturiko menua

### Enkarguz:

- Taldekako babarrin jatea
- Txerrikumea • Arkumea

### ERRESERBA EGITEKO:

San Miguel bailara, 2 • Hernalde •

943 65 21 16

[elketajatetxea@hotmail.com](mailto:elketajatetxea@hotmail.com)



## Asteartera bitarte jaia izango da nagusi Tolosan

HITZA egunero argitaratuko da, eta txupinazoa zuzenean ikusi ahal izango da 'tolosa.hitza.info'-n

**Rebeka Calvo** Tolosa

Ostegun Gizen da gaur. Egurdian lehertuko da jaia, urtero legez, eta asteartea bitarte ondo pasatzeko hamaika aukera izango da. Tolosako Udalak prest du guztia, zezen festak, txarangen ordutegiak, karroza eta kompartsen ordutegiak eta ibilbideak... Eta baita haurrentzako horren garrantzitsuak diren barrakak ere. Gaurtik asteartera bitarte izango dira tren geltoki ondoan eta txangoak 2 euro balio duela argitu dute udal arduradunek, eta hurrek 1,6 euro ordaindu beharko dutela. Hauster egunean euro batean egongo dira txangoak.

### Berrikuntza nagusiak

Berrikuntzei dagokionez, Zerkausiko jantokia gaez irekiko dute lehen aldiz, eta gaurkoan es-

trainez ere, orain urte gutxi sortutako On Ostegun Gizen pertsonaiak konpartsa izango du. Era berean, Oargi elkarteak txaranga aterako duela esan behar da; elkartearen 25. urteurrenarengatik atera zuten lehen aldiz, eta aurten berriz ere ateratzea erabaki dute.

Aipatutakoarekin batera, Aurterra kirol elkartearen gaurko danborrada 20:00etara aurreratu dutela nabarmendu behar da, eta baita eraso matxistak salatzeke gunea izango dela herrigunean; gaur 12:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 19:00etara; Zaldunitan 21:00etatik 01:00etara; eta Astelelita eta Asteartitan 19:00etatik 23:00etara.

Noski ezin aipatu gabe utzi, zezen festetarako sarrerak segituan agortu direla. Nahiz eta oraindik, zezen plazako leihatilan ere erosi daitezkeen. Zezen plazan egunean bertan erosi ahal izango dira 11:00etatik 13:00etara, eta 15:30etik aurrera, eta zezen plazako edukieraren %10a bakarrik izango da salgai.

Zaldunitan eta Asteartitan ateratzen diren karrozei dagokio-

nez, udalak egin du ibilbideen zozketa, eta bi taldetan banatuta aterako dira; batzuk geltoki zaharretik aterako dira, eta besteak Gorriti plazatik. Igandean leku batetik ateratzen direnak, astearrean besteak aterako dira.

Jaia hortaz, leku guztietara zabalduko da gaurtik aurrera. Eta Amarotz auzoan esaterako orain zazpi urte bezala, inauterietarako

apaindutako balkoien lehiaketa egingo dute, eta parte hartzeko baldintza da Ostiral Meherako, hau da, biharko, apaingarriak jarritara izatea. Balkoirik politenari 100 euroko saria emango diote, bigarrenari 75 euro eta hirugarrenari 50 euro. Kolore gehien dituen balkoiak, gainera, aipamen berezia jasoko du.

Lehiaketako antolatzaileek

amarotzar guztiak animatu dituzte parte hartzera.

### HITZA egunero

HITZA ere prest dago inauterietan murgiltzeko, eta egunero kaleratuko du egunkaria. Harpidedunek hortaz, eguneko argazkiak, albisteak, elkarrizketak... jasoko dituzte etxean, eta igandean, astelehenean eta asteartean, kalean ere banatuko ditu aleak.

Egunkaria egunero kaleratzeaz gain, [tolosa.hitza.info](http://tolosa.hitza.info) webgunea itxuraldatu eta inauterietara gehitu da. Bertan elkarrizketak, bideoak, argazkiak, guardiako farmaziak, garraio publikoak... daude ikusgai. Era berean, HITZAK Inauterietako Argazki Lehiaketa abiarazi du, eta jasotako argazkiak webgunean jarriko ditu ikusgai. Irudiak martxoak 9a bitarte bidali daitezke eta parte hartzaile bakoitzeko argazki bakarra onartuko da. Irabazleak Ajangizko Astobietako nekazalturismoan bi pertsonentzako gau bateko egonaldia egin ahal izango du.

Ez ahaztu gaurko 12:00etako txupinazoa zuzenean ikusi ahal izango dela [tolosa.hitza.info](http://tolosa.hitza.info)-n.



Inauterietako kartela Tomas Hernandezek egin du. HITZA



## Itzea Urkizu Tolosa

Inauterizale Kuttun izendapenak erabat hunkitu du Eduardo Chocano (Tolosa, 1937). Ume-umetatik inauterien saltsan ibilitakoa da bera, eta Tolosako inauterizale ezagunenetako bat da.

Festan parte hartzeaz gain, ordea, bere inprimategian inauterietako hiru aldizkari egindakoa da bera. 1961, 1965 eta 1967 urteetan argitaratu ziren aldizkariak, eta Chocanoz gain, hainbat lagunerekin ere idazten zituzten testuak.

Herritar askok gogoan izango dituzte, oraindik, bere mozorroak: toreroz, tabako saltzailez, italiar patata dendaz nahiz angula saltzailez. Tolosako inauterietan «denetik» egin duela dio berak, eta denetik bizi izandakoa da, polizia etxera bila ere joan baitzitzaien behin, 1.000 pezetako gezurrezko bileteak karrozarako inprimatzeagatik.

Gaur, Kabi Alai elkartereko udalbatzak Inauterizale Kuttunaren izendapena emango dio, eta 12:00etako txupinazoan udaletxe bakoian izango da, hainbeste maite dituen jaiei hasiera emateko.

**Gaur, Ostegun Gizen, Inauterizale Kuttun izendatuko zaitu Kabi Alaiako udalbatzak. Zer da zuzentzat izendapen hori jasotzea?**

Poz handia izan da niretzat, segituan hunkitzen naiz. Urte asko daramatzat inauterietan ateratzen; 1950 urtean jada ateratzen nintzen. Ni 1937an jaio nintzen, eta hamahiru urte baino gutxiagorekin inauterietan ateratzen nintzen, baterekin ez bazen, bestearekin. Ez dut beste inauteririk ezagutu, baina gehien gustatu zaidana izan da beti inauteria. Betidanik bizi izan ditut inauteriak, eta baliabide gutxiekin, gainera.

**Inauterik urteko egunik garrantzitsuenak dira zuzentzat?**

Bai, hala dira. Adinean aurrera goazen heinean, gaztetako grina hori ere galdu egiten da pixkanaka, baina poz handiz ikusten ditut alabak eta bilobak mozorrotuta, festaz gozatzen.

**Noizbait hutsik egin al duzu?**

Txiki-txikitatik beti atera izan naiz, trajearekin, txilabarekin, pijamarekin, amonaren gona batekin edo edozein gauzarekin. Behin, ordea, oso inauterizalea zen lagun min baten heriotza zela eta, haren senide eta lagun guztiak Aurizberrira (Nafarroa) joan ginen inauteriak pasatzera; tristea izan zen.

**Nork helarazi zizu inauteriekiko grina hori, gurasoek?**

Aita Espainiako Gerran hil zen, eta ama Frantziara joan zen erditzera; han jaio nintzen ni. Hilabete nuela, ordea, Tolosara etorri ginen. Ni festaren erdi-erdian bizi izan naiz, Rondilla kalean, eta Dianaren doinua entzun orduko jaikitzen nintzen; ezin izaten nuen ohean geratu.

**Nola prestatzen zenituzten karrozako antzerkiak?**

## Eduardo Chocano o Inauterizale Kuttuna

Inauteriak urteko egunik garrantzitsuenak dira Eduardo Chocanorentzat. Hainbat urtetan Tolosako inauteriei eskaini dienagatik, Inauterizale Kuttun izendatuko dute gaur eguerdian.

## «Diana entzun orduko jaikitzen nintzen, ezin izaten nuen ohean geratu»



Eduardo Chocano, eskuinean, tabako saltzaile mozorroarekin. HITZA

Askotan zineman ikusitako gauzak izaten ziren. Adibidez, *El negro zumbón* filma eskaini zuten behin, eta abestia ezaguna egin zen. Tolosar bat abesti hura dantzatzat atera zen inauterietan, eta sekulakoa izan zen hura.

**Eta karrozetarako materiala lortzeko nola moldatzen zineten?**

Ez genuen ez pinturarik, ez iltzerik, ez egurririk, ez ezer. Baina ahal genuena egiten genuen, egurra handik eta hemendik lapurtuz. Zer egingo genuen ba, erosi? Ez genuen dirurik!

**Mozorroak ere arruntagoak izango ziren lehen.**

Lehen ez zen hainbeste jende mozorrotzen, eta gainera, mozorroak garestiak izaten ziren; gaur egun, lau sosekin mozorroa eros dezakezu. Gogoan dut, Donostia denda batek jantziak alokatzen zituela, eta Imperio Argentinarena han eskuratu nuela. Beste behin, toreroaren jantzia aloka-

tzeko, 100 pezeta ordaindu nituen, tailerrean ordu asko lan egin ondoren; garai hartan diru asko zen hura! Urte hartan, ni torero jantziarekin atera nintzen, eta laguna andregai jantziarekin; Atotxa futbol zelaiko bazkideak ginen, eta mozorrotuta joan ginen partida ikustera. Pentsa zer nolako zalaparta sortu zen! Partidua ere geratu egin zuten, izan ere, han inor ez zen mozorrotzen.

**Eta zuk jantzitako mozorrorik gogon al duzu bereziki?**

Behin tabako saltzailez mozorrotu ginen, 1960an. Ni alemaniara joan nintzen, arte grafikoan azoka batera, tipografo lana bainuen. Nazioarteko azoka zen, eta azokan goizeko zortzietan sartu eta 20:00etan ateratzen ginen. Gauetan, azokara joaten ginen langile guztiok harrera moduko bat egiten ziguten hotelean, eta bi neska ateratzen ziren kankan gona jantzita. Batek, zigarroak sal-

tzen zituen eta, besteak, argazkiak ateratzen zituen. Argazkiak Tolosara bidali zizkidatenean, lagun bati erakutsi nizkion, inauterietarako ideia moduan. Zirriborro bat prestatu genuen udalari bidaltzeko, garai hartan moralarekiko arauak bete behar baitziren, eta baimena behar zen konpartsa bat ateratzeko.

**Baimena lortu al zenuten?**

Kankan gonarekin mozorrotzea debekatu egin ziguten, Bartzelonan gona haien bila ibili ondoren. Azkenean galtza batzuk egin behar izan genituen, eta azken ordu horrela atera ginen. Hori Astelenitan izan zen, eta arrakasta izugarria izan genuenez, alkatuek gutun bat bidali zigun, Asteartitan berriro ateratzeko esanaz. Ez baginen ateratzen, lehiaketatik kanpo utziko gintuela esan zigun. Azkenean, ez genuen sosarik jaso mozorroagatik, gonak etxean geratu ziren, eta tabakoa salduz irabazi genuen diru apurhura Frontoiko dantzaldian lapurtu ziguten.

**Frankismo garaian nola bizi izan zenituzten inauteriak?**

Ahal genuen bezala. 22:00etatik aurrera ezin izaten genuen ez tabernetan, ez inon egon. Ordutegia jartzen zuten: urte batean 22:00ak, bestean 23:00ak, bestean 00:00ak... Urteak aurrera zihoazen heinean, ordutegia zabaltzen zuten, baina ez gehiegi. Orain, berri, gau osoan egin daiteke parrranda.

**Urte haietako pasadizoren bat gogon duzu?**

Asko ditut, bai. Karrozarako bozgorailuak alokatzen genituen, Donostian. Kablea, ordea, etxebizitzaren batera bota behar izaten genuen, konektatu eta argi indarra izateko. Balkoietan zaudenei galdetzen genien ea etxean konektatuko zuten; etxeetakoek, batzuetan, 125 kv zituztela esaten ziguten, eta noski, guk 220 kv genituen. Behin, Rondilla kalean, ezkaratze oso bat argi indarririk gabe utzi genuen! Fusibleak lehortu egin ziren.

**Inauteriak aldatu al dira?**

Lehen inauteria eta oraingoa bi gauza desberdin dira. Lehen kaleko jendea ez zen mozorrotzen. Ni, lau trapurekin bazen ere, beti atera izan naiz mozorrotuta.

Nire ustez, gainera, orain, hainbeste musikak eta dantzak trakestut egiten dute ibilbidea. Karrozak Araba etorbidean jartzen dira, eta San Frantziaskora iristen direnerako 14:00ak edo 15:00ak izaten dira. Nire ustez, dantza egiten dutenek karrozetan atzetik atera beharko lukete, edo bestela, irteera ordua lehenago jarri beharko litzateke haueri, karrozak gero behar bezala etortzeko. Gainerantzean, oso ondo iruditzen zait gazteek gauzak antolatzeke gogo hori izatea. Karrozak nola egiten dituzten ikustea, zer nolako arretaz, oso pozgarria da.

**Gaur egun nola bizitzen dituz inauteriak?**

Nik, orain, inauteriak nire alabekin eta bilobekin pasatzen ditut, haiekin gozatuz. Orain ez naiz ka-



Gazteek karrozak zer nolako arretaz egiten dituzten ikustea oso pozgarria da»

**EDUARDO CHOCANO**  
Inauterizale Kuttuna

rrozetan ateratzen, 75 urte egin behar baitituz, eta 20 urte nitueneko sasoiak ez du irauten. Hala ere, beti inauterietan barruan izaten naiz: txilaba jantzen dut batzuetan, edo aurkitzen dudana zerbaite. Izan ere, garaje guztia mozorrotzeko bete nuen, eta azken uholdeek arropa guztiak eramane zizkidaten. Eta adin honekin ez naiz hasiko berriro mozorroak erosten!

**Txarangek garrantzia al dute inauterietan?**

Bai, oso garrantzitsuak direla uste dut, eta jende askok salto egiten du. Zezen festaren ondoren kalejirari begiratu gero ikusten da zenbat jende joaten den saltoka. Oso pozgarria da hori.

**Abestirik kuttunik ba al duzu?**

Inauterietakoak den-denak gustatzen zaizkit. Gainerantzean, zarzuela eta opera entzuten ditut. **Inauterietako une bat aukeratu beharko bazenu?**

Alborada asko gustatzen zait. Orain ez naiz beti joaten, baina nire alabek ez dute hutsik egiten. Diana ere oso polita da; askotan joaten nintzen.

**Hausterre egunean zer pentsatzen duzu?**

Kalean pasa ditugun ordu guztien nekea errekupeatu behar izaten dela!

**Zeresango zenieke gazte tolosarrei?**

Inauterietan horrela parte hartzen jarrai dezatela esango nieke, jarrai dezatela poz horrekin gauzak egingez.



Udalak bestelako jardueretara bideratu nahi du Arkaute etxea. I. GARCIA

## Gurutze Gorria Larramendiko lokaletan ariko da aurrerantzean

Tolosako Udalak 30 urteko epea eman dio Gurutze Gorriari, lokalak erabiltzeko; 10 urtez luza daiteke

### Itzea Urkizu

Tolosako Gurutze Gorriak Larramendi auzoko Madalen kaleko 1 eta 3 zenbakietan, eta Uzturre kaleko 25 zenbakian burutuko ditu aurrerantzean, bere jarduerak.

Orain arte, Arkaute parkeko Arkaute etxean aritu izan da Gurutze Gorria, baina etxearen jabea den Tolosako Udalak bestelako jardueretara bideratu nahi du eraikina. Gauzak horrela, Gurutze Gorriak beste udal instalazio batzuk eskatu zituen, eta udalak Gorostidi-Voith eremuan dituen sei lokal aurkeztu zizkion erakundeari.

Pasa den urriaren 21ean sinatu zuten borondatezko akordioa udalak eta Gurutze Gorriak, eta

bide beretik Hirigintza Teknikariak gaiaren inguruan egin duen txostenari jarraituz, 30 urte izango ditu Gurutze Gorriak, udalaren ondasuk horiek erabiltzeko; iraunaldi hori beste 10 urtez luzatzeko aukera izango da, hala adosten badute.

Gobernu Batzarrak aho batez onartutakoa 30 egunez jendaberran jarriko dute, eta alegaziorik ez bada, behin betiko onarpena izango da.

### Euskara sustatzeko laguntza

Tolosako Udalak, orain arte, euskararen erabilera sustatzeko maila guztietako egitasmoak lagundu izan ditu diruz. Orain, Lehen Hezkuntzatik aurrerako ikasleentzako egitasmoak lagunduko ditu, LHkoei *Ahokotasuna eta bertsolaritza* programagatik diru laguntzak emango dizkietelako.

Programak ikastetxeek eurek aurkeztu beharko dituzte, eta udalak behar espezifikoak zehaztu ditu: sare sozialetan euskara-

ren erabilera bultzatzea, gurasoengan hizkuntza jarrera egokiak bultzatzea, enpresetako praktikak euskaraz sustatzea, etorkinak euskalduntzea nahiz kirol jarduerak euskalduntzea.

Proiektu bakoitzak, gutxienez, 2.000 euro jasoko ditu, eta gehienez 6.000 euro, eta martxoaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira. Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordean. Hain zuzen ere, bertako kideak izango dira epai mahaiko kide.

### Hedabideei ere laguntza

Azken urteotan Tolosako Udalak diruz lagundu ditu euskararen nahiz euskal kulturaren alde lanean ari diren hedabideei.

Aurten, bide beretik, eta aho batez onartuta, 36.000 euro jaso ditu 28 kanalak, 23.000 Galtzaundi Euskara Taldeak, 11.500 Galtzaundi aldizkariak, 7.000 euro Txolarre irratiak, eta 33.500 euro TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## Bizikidetzaren udal planerako taldea osatuko dute

Bigarren fasean ari dira jada, eta hilaren 23an udaletxean egingo dute bilera eragileen iritzia bildu ahal izateko

Lantaldea datorren hilaren 23an, ostegunean, osatuko dute udaletxeko batzar aretoan 19:30etik aurrera. Parte hartu nahi dutenek udalean jakinarazi behar dute.

### R.C.

Tolosako Udalak jakinarazi duenez, burutzen ari diren Tolosako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen udal plana bigarren fasean dago, eta orain, elkarteekin biltzeko garaia da. «Azterketa honen barruan, elkartei zuzenduta antolatuko dugun lantaldean parte hartzera gonbidatu nahi ditugu herritarrok», azaldu dute.

### Proposamenak aurkeztu

Udalak argitu duenez, ikerketaren helburu nagusia da Tolosako eragile politikoen, hezkuntza arloan lan egiten dutenen eta gizarte eragileen iritzia jasotzea. Eta behin iritzia bilduta «gaur egungo egoera eta premia orokorrak ezagutu eta ekintza proposamenak» aurkeztuko dituzte, beti ere, bizikidetzari, giza eskubideei eta bakerako heziketari dagokionez.

## Bildarratz Gipuzko Buru Batzarreko kide izan daiteke

Tolosako EAJk kargurako proposatu omen du, baina ez dute ustezko proposamen horri buruz adierazpenik egin nahi

### I. Garcia

Tolosako alkate ohi Jokin Bildarratz Gipuzko Buru Batzarreko kide izan daiteke, *El Diario Vasco* egunkariak argitaratu duenez. Pasa den ostegunetik EAJ alderdian udalerritako batzarrak burutzen ari dira, eta, ustez, Bildarratzen parte hartzea babestu

dute. Besteak beste, EAJren Tolosako batzarrak Bildarratz proposatu omen du Gipuzko Buru Batzarreko parte izateko. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA Tolosako EAJrekin harremanetan jarri da proposamena konfirmatzeko, baina bertako bozera-maile batek esan duenez, barne prozesuko kontuei buruz ez dute adierazpenik egingo.

Iazko udal hauteskunde ondoan, Jokin Bildarratzek behin behinean politika utziko zuela esan zuen. Anoetako Ikastolan zuen lanpostura itzuli zen eta doktoretza eta master ikasketak hasi zituen.

## Harizpe elkartearen txangoa Iparraldera

### I. Urkizu

Pentsiodunen Harizpe elkarteak, urteroko txangoa antolatu du Ipar Euskal Herrira, datorren martxoaren 27rako. 09:00etan San Frantziskotik irtengo da autobusa, eta Donibane Lohitzune bisitatzera joango dira. Eguerdian, berriz, Urnietako Oianume sagardotegian egingo dute bazkari legea: bakailao tortila, legatza, txu-

leta, intxaurrek, irasagarra, gazta, sagardoa, ura eta kafea sartuko dira menuan.

Bazkalondoan, Donostiara joango dira arratsaldea pasatzera.

Harizpe pentsiodunen elkarteak bazkide direnek, 33 euro ordaindu beharko dute, eta bazkide ez direnek, berriz, 36 euro. Azken hauek, datorren otsailaren 26ra bitarte izango dute izena emateko epea.





## Zigor Sagarna ◀ Musikaria

Aintzina taldeak bigarren diskoa atera berri du, 'Kosinatik kanberala' izenekoa. Folk doinuak lantzen dituzte, eta bertako kidea da Zigor Sagarna tolosarra.

# «Herri musikari ez zaio ematen behar duen oihartzuna»

**Imanol Garcia**

Zigor Sagarna (Tolosa, 1973) Aintzina taldeko ahotsa izateaz gain, panderoa eta baxua ere jotzen ditu. Esne Beltza taldean aritutakoa, egun Laket taldeko partaide da. Folk musika egiten dute Aintzinakoeak, eta Sagarnaz gain bertako kide dira Alan Griffin, Juanjo Otxandorena eta Arkaitz Miner, beste hainbat formazioetan aritu diren musikariak.

### Nondik datorkio taldeari izena?

Aintzina izena, taldeari izen bat jarri behar geniola eta Juanjo Otxandorenak *Pepek* hauxe bota zuen beste izen askoren artean. Egokia iruditu zitzaigun hitzak berak dituen esanahi askorengatik: aspaldikoa, aurrera, Zuberoako dantzetan erabiltzen den dantza pausoa...

### Bigarren diskoa, *Kosinatik kanberala* atera berri duzue. Zer eskaintzen duzue bertan?

Bigarren lan honetan, *Suitian* lehenengo lanaren ildo beretik doazen 14 doinu bildu ditugu, orain dela 100 urte Resurreccion Maria Azkuek, Aita Donostiak eta Xahok Euskal Herri guztian zehar jasotako antzinako abesti narraitiboak eta era berean instrumentaltal berriak doinu herrikoietan oinarritutakoak plazaratu ditugu.

### Zer harrera izan zuen lehen diskoak?

Lehenengo lanak ez zuen interes handirik piztu Euskal Herriko kultur arduradun eta programatzaileen aldetik behintzat. Oso emanaldi gutxi egin ditugu, nonbait beti ekonomikoki oso gaizki ibiltzen omen dira eta... Bigarren lanarekin espero duguna, berriz, hobe eseri eta itzaroten jartzea. Euskal musikagintzari gaur egun ez diot behar adinako bul-tzadarik ikusten.

Taldearen izenak dioen bezala, **aspaldiko abestiak berreskuratzen dituzte. Gainera, bitxikeriak. Nola egiten duzue berreskuratze hori?**

Berreskuratzen ardura Alan

Griffin-ek hartzen du, kantutegiak arakatu eta bitxiak iruditzen zaizkionak mahai gainean jarri eta lantzeari ekiten diegu.

### Zu, abeslaria izanik, testuak ahoskatzekoan nola moldatzen zara?

Gai honetan duda handiak izan ditugu, ez naiz zuberotarra ezta bizkaitarra ere. Azkenean testuak jasota dauden bezala aldaketa gutxi batzuekin abestu ditut. Alanekin esan zidan nire euskalkian abesteko, hartara, era naturalagoan aterako zirela; askotan arraroa gerta daiteke. Istoriok ulergarri geratzen dira.

### Nolako izan da taldearen ibilbidea?

Taldea erdi osatua zegoen. Alan, Arkaitz Miner eta Juanjo Otxandorena elkarrekin doinu irlandar



HITZA

rrak jotzeko elkartzen ziren, Alanek proiektu honen asmoa mahai gainean jarri zuen arte. Abeslari bat behar zuten, niregana jo zuten. Lehenagotik Juanjo Otxandorena eta Joseba Iparragirrekin euskal kantu herrikoiak jotzen aritu ginen 'Hiru Buru' egitasmoan, eta Alanekin batean parte hartzeko eskatu zidan arte.

### Nola ikusten duzu gaur egungo euskal folk edo herri musika?

Sasoiko ikusten dut, batik bat herrietako dantza taldeetan lanean aritzen diren musikarietan: txistulari, albokari, txalapartari, tri-

kitilariak ikusi eta entzunda. Behar bada, herri musikak herrigintzan duen garrantziari ez zaio behar duen oihartzuna ematen. Oihartzun eta indar handiagoa eman beharko litzaioke instituzio aldetik herri musikari. Betiko enbaxadorez baliatuz dena egina dutela dirudi.

### Garai hauetan diskoak ateratzea zaila da, eta zuzenekoak ematea ere hala izangoda.

Oraindik behintzat ez daukagu inongo aukerarik begi bistan. Azken sei urteetan egindakoa lan hau zuzenean eskaini ahal izateko da. Ea elkarrizketa hau zer edo

zertarako baliagarri egiten zaion bakarren bati.

### Esne Beltza taldean parte hartu duzue eta, egun, Aintzinakoaz aparte, Laket taldeko kidea zara. Nola moldatzen zara estilo batetik bestera pasatzeko?

Esne Beltzaren sorreran parte hartu nuen baxujole bezala Xabier Solanok deituta. Azkenean ezin izan nuen taldeak behar zuen konpromiso mailara iritsi, Laket, Aintzina eta lana uztartzearekin nahiko lana banuen. Orotariko musika entzuten dut eta erraz moldatzen naiz edozein musika motara.

Inauteriak ondo pasa!

**Joseba**  
ileapaindegia

Nafarroa etorb. 12 • Tolosa  
Tel.: 943 65 26 98

**GURU GTZE**  
AUTOAK

Tel.: 943 654 025  
943 650 352  
Faxa: 943 652 653

Benta Aldea  
industrialgunea z/g  
20270 Anoeta

**elduaien**

Ondo pasa inauteriak!!

UNIVERSITY of CAMBRIDGE  
ESOL Examinations  
Authorised Centre

T. 943 674 733 / www.elduaien.com

Ondo pasa inauteriak!

**Xirimiri**  
Txokolategia

Trementari kalea, 40  
20400 Tolosa

Tel.: 943 67 52 23

# Udal ordezkariak Ultzamako biogas planta bisitatu dute



Eraikin publikoak berotzeko biomasa sistema ezagutu zuten. HITZA

Behi purina erabiliz, argindarra, bero termikoa, konposta eta usainik gabeko likido ongarria lortzen dute

## E. Maiz

Eskualdeko udal ordezkariak, Tolosaldea Garatzenek antolatuta, Ultzamako biogas planta bisitatu dute. Eskualdean iraunkortasunean oinarritutako garapen politiken aldeko apustua egin nahi du Tolosaldea Garatzenek, eta esperientzia berritzaileak udaletara gerturatzea du helburu.

Udal ordezkariak, Tolosaldeko tokiko garapen eta ingurumen teknikari, Tolomendi Landa Garapen Elkarte, Tolosaldeko LH Institutua eta Tolosaldea Garatzeneko ordezkariekin batera izan ziren. Energia berriztagarrien arloan, biomasaren eta biogasaren sorkuntza, ustiapena eta aprobetxamenduaren inguruko esperientzia ezagutu zuten. Ultzamako udaleko Patxi Tornaria injineru eta zinegotziak hartu zituen bertan.

Lehenik eta behin Ultzamako udalak dituen eraikin publikoak berotzeko biomasako berokuntza sistema ezagutu zuten. Kiroldegiaren ondoan dagoen biomasako kaldera handiak (eta pelleteko beste bi galdara txikiagoak) hornitzen ditu udal eraikina, kultur

etxea, osasun etxea, kiroldegia, igerilekua eta ikastetxea; guztira, hamar eraikin publiko dira. Eraikin guztiak hodiz konektatuta daude eta biomasako berokuntza sistema bateratua erabiltzen dute. Iaz 405 tona ezpala erabili zituzten, eta aurtren 350 tona erabiltzea aurreikusituta dute.

Biomasa Euskal Herriko energia berriztagarrietatik erabilienetakoa da. Baso, nekazaritza, belar eta egur hondakinak erabiltzen ditu etxerako ur beroa edota etxea berotzeko. Biomasa berokuntza sistema eraikitzeke hodiak sartzeko lanak, zuntz optikoa sartzeko aprobetxatu ziren. Horri esker, telefoniako gastuak nabarmen gutxitu dituzte.

Ultzamako bailaran 30 abeltzaintza ustiapen dituzte eta 15ek purinak kudeatzeko arazoak zituzten. Biogas planta eraikitzea erabaki zuten hori ekiditeko. Horrelako plantetan prozesatzen den behi purinekin argindarra, bero termikoa, konposta eta usainik gabeko likido ongarria lortzen dira.

Orain arte, ongarri honen energia belardietan bukatzen bazuten ere, gaur egun planta honek 500kw eguneko eta 865kcal eguneko sortzen ditu naturalki. Bi produktu sortzen dira; batetik, biogasa (bero termikoa eta argindarra) eta bestetik, produktu digeritua (solidoa eta likidoa); ongarri moduan berrerabili daitezkeen.



Bai Euskal Herriari ekimeneko kideek udal ordezkarekin batera, Villabonako Aljibearen aurkeztu zituzten. E. MAIZ

# Euskal Herriko historia ezagutzeko hitzaldietan izena eman behar da

Hitzaldiak Bai Euskal Herriari ekimenak antolatu ditu, udalen laguntzarekin; Tolosako kultur etxean izango dira

## Eneritz Maiz Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Aljibearen aurkeztu zituzten, Euskal Herriko Historia Ezagutu hitzaldi sortak. Bai Euskal Herriari ekimeneko partaideek, udal ordezkariekin batera antolatu dituzten hitzaldiak dira. Euskal Herriko historia ezagutzera emateko hitzaldiak martxoako lau astelehe-

netan 19:00etatik 21:00etara izango dira, Tolosako kultur etxean.

Izena eman beharko da hitzaldietara joateko. Izena eman nahi duenak: [tolosaldea@baieuskalherriari.org](mailto:tolosaldea@baieuskalherriari.org) helbidera idatziz edo 652 715 800 telefonora deituz egin dezake. Lau saioetarako izena ematea 20 euro ordaindu beharko da. Ikasle edo langabetuek, aldiz, 8 euro ordainduko dute. Dirua 3035 0060 44 0600137003 Euskadiko Kutzako zenbakian sartu beharko da. Bestela, bonoak jarri dituzte salgai Tolosako Rakun, Villabonako Iru-Aldetan, eta Ibarako Subegin.

Nafarroako erresuma konkistatu zuteneko 500. urteurrena

dela eta, historiari buruzko zabalpena bultzatu nahi dute: «bere historia ezagutzen ez duen herriak, ez du etorkizunik herri bezala», adierazi zuten. s

Alvaro Arrizabalaga EHUko Historiako doktoreak emango du lehen hitzaldia: *Historiaurrea Euskal Herrian*. Bigarrena, *Orreagatik Amaurrera: Nafarroako konkista* hitzaldia izango da. Patxi Abasolo Nafarroa Bizirik elkartearen eskutik izango da. Martxoaren 19ko hitzaldia Iñaki Egañaren eskutik etorriko da, eta *Matxinadak, Karlistadak, Gerra zibila eta Trantsizioa* izango da. Azkena, EHUko irakaslea eta idazlea den Fito Rodrigezek eskainiko du: *Trantsizioa Euskal Herrian*. Informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, [www.baieuskalherriari.org/historia](http://www.baieuskalherriari.org/historia) webgunetik lor daiteke.

## ↓ Euskal Herriko Historia Ezagutu, hitzaldiak

### MARTXOAK 5, ASTELEHENA

■ 19:00. *Historiaurrea Euskal Herrian* hitzaldia emango du Alvaro Agirrezabalagak.

### MARTXOAK 12, ASTELEHENA

■ 19:00. *Orreagatik Amaurrera: Nafarroako konkista* hitzaldia emango du Patxi Abasolok.

### MARTXOAK 19, ASTELEHENA

■ 19:00. *Matxinadak, Karlistadak, Gerra zibila eta Trantsizioa* eskainiko du Iñaki Egañak.

### MARTXOAK 26, ASTELEHENA

■ 19:00. *Trantsizioa Euskal Herrian* hitzaldia izango da Fito Rodrigezen eskutik.

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Villabonako Errota auzoan. Interesatuak, deitu 619 770458 telefono zenbakira.

### LANA

■ **Zaintzailea.** Pertsona bat behar da 2 ume zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko. Kotxea behar da. Interesatuak, deitu 669 369008 telefono zenbakira.

### GALDUTAKOA

■ **Eraztuna.** Zilarrezko pieza borobil bat duen eraztun beltz bat galdu nuen Tolosan larunbatean (otsailaren 11ean) Zerkausieren inguruan. Norbaitek aurkitu badu deitu mesedez telefono honetara 625 709 611.

**Jose mari jatetxea**

Ihauteritan menu bereziak

**Etorri!**

Lehen menua	Bigarren menua
Angula freskoak Baseriko oiltsakoa edo txuleto Pastrea Kafea Crispita rioja edo sagardoa.	Tolosako babarrunak Lenguado "menière" edo baseriko oiltsakoa Pastrea Kafea Crispita rioja edo sagardoa.
60€	27€

Erreserba egokia deitu  
949682047 Oñak 11,12. Lizartza Basterioan.  
Lizartza Oñak 10-13, 21. etz. Tolosako Basterioan.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Bost milioi euroko aurrekontua onartu du Ibarra

Inbertsioetara milioi bat euro baino gehiago bideratuko da, zatirik handiena erabilera anitzeko eraikiner

**Iñigo Terradillos** Ibarra

Herenegun eginiko osoko bilkuran 2012. urterako aurrekontua onartu zen Bilduko zinegotzien aldeko bozkekin. 5.086.000 euroko aurrekontua izango du, bada, udalak, pasa den urtean baino 500.000 euro gutxiago. 2010eko datuei erreparatu gero, berriz, 6.961.500 euroko aurrekontua zuen udalak urte hartan. Bi urte-tan ia bi milioi murriztu da, beraz, aurrekontu orokorra.

Inbertsioetara bideratutako gastua da nabarmendu beharreakoa, bikoiztu egiten baitu iazko kopurua. Jexux Peñagarikano alkateak adierazi bezala, «igoera, hein handi batean, erabilera anitzeko eraikuntzaren lanek sorturikoa da». Izan ere, 1.089.257 da inbertsioetarako erabiliko den kopurua, eta 780.000 euro bideratzea aurreikusitako Beheko Biden altxatzen ari diren eraikuntzaren obretarako. Kopuru horretatik, 178.000 euro da Udalak bere gain hartuko duena, eta Eusko Jaurlaritzatik 512.000 euro jasoko dira proiektu horretarako.



Bilduko hautetsien aldeko bozkekin onartu dute aurtengo aurrekontua. IT.

Uholdeek eragindako kalteek sorturiko gastua ere nabarmendu du Ibarra alkateak. Hain zuzen ere, 143.000 euro bideratuko dituzte Izaskun auzoan euriteen ondorioz baserriko bideetan izandako kalteak konpontzeko. Uzturpe ikastolako patioa berritzeko, bestalde, 60.000 euro aurreikusitako aurrekontuetan, eta hori ere azpimarratu nahi izan zuten herenegun eginiko bilkuran.

Aurrekontuko gainerako gastuei dagokienez, pertsonal gastua 1.437.192 eurokoa da, iazkoa baino 100.000 euro gehiago, eta

gastu arrunta 1.858.110 eurokoa, 100.000 euro gutxiago. Udalaren transferentziak edo diru laguntzak, berriz, 520.868 euro izango direla aurreikusten dute, iaz baino 70.000 euro gutxiago, eta 2010erako aurreikusitakoaren erdia.

**Etxebizitza sozialen tarifa**  
Bestalde, atzo eginiko osoko bilkuran onartu eta gero, erabilera anitzeko etxebizitza sozialek tarifa izango dute aurrerantzean. 65 urte baino gehiago dituzten hartzaileek 150 euro ordainduko dute hilean banakako logelarengatik,

eta 65 urtetik behera dituztenek, berriz, 180 euro ordaindu beharko dute.

**Atez ateko zabor bilketa**  
PSE-EEren zinegotziak atez ateko zabor bilketaren inguruko mozioa aurkeztu zuen osoko bilkuran etzabaidatua izan zedin. Mozioaren arabera, atez ateko sistema «zikinagoa, deserosoa eta garestiagoa da». EAJren aldeko bozka eta Bilduren aurkako zortzi izan zituen mozioak. Bilduren arabera, «garbiagoa da, bi orduz baino ez baita egoten zaborra kalean, ohiturak aldatzea

↓ **Datuak**

**2012KO AURREKONTUA**

- **Pertsonal gastua.**  
1.437.192 euro.
- **Gastu arrunta.**  
1.858.110 euro.
- **Transferentziak.**  
520.868 euro.
- **Inbertsioak.**  
1.089.257 euro.

**INBERTSIO NAGUSIAK**

- **Erabilera anitzeko eraikineren obrak.**  
780.000 euro.
- **Uholdeek sortutako kalteak.**  
143.000 euro.
- **Ikastolako patioa berritzea.**  
60.000 euro.
- **Kiroldegia berritzea.**  
15.000 euro.
- **Planeamenduko Plan Orokorra egitea.**  
12.000 euro.

baino ez du eskatzen, eta sistemarik merkeena eta hondakina murriztu eta birziklapena areagotzeko eraginkorrena da».

**Sektore publikoaren erreforma**  
Bestalde, Bilduk aurkezturiko Espainiako Gobernuak ezarri duen sektore publikoaren erreformaren aurkako mozioa ere onartu du Udaltzatik. Era berean, jaioberrien bidetarako jabetze edo adopzio irregularrei buruzko mozioa onartu da, eta sahararren aldarrikapenen alde Tolosaldea Sahararekin elkarrekin aurkezturiko mozioa ere onartu du Ibarra Udaltzatik.

**Hilberriak**

**ESKELAK**

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

**-Esker onak-  
Asentxio Ondarzal  
Madrazoren sendia**

Eskerrak ematen dizkizuegu momentu gogor hauetan eskaintako gertutasunarengatik.

**ANTTON IRIZAR IMAZ**

Ipiztebako Udaletxeko egindako lanaren esker onaz

Milazabal, 2012ko otsailaren 16a

**ANTTON IRIZAR IMAZ**

Nahiz eta heriotza heriotza zaitzala jakin  
Ez dut honen aurka buru-bihotzez borrokatzeko etsikoi!  
Ez nau ustet gabean hartatuko!  
Bizi nabezko bizi-tzat hartuko dut.  
Eta behar dudan denbora baino lehen hitzen bannaute  
Nere hortzetan itzaliko den esker onaz  
Beste batentzat izatuko den lehen aia izango da  
Eskerri onak!  
Heriotza jentil, Heriotza on!  
Izalbai

Milazabal, 2012ko otsailaren 16a

**ANTTON IRIZAR IMAZ**

Atzo hil zen, 55-urte zituela. Ezizkoiak eta Aita Santuaren Bederikapea hartu ondoren.

**-Golien bego-**

Alaba: Aintzane; emaztea: Josepi Mendizabal; alabak: Aitziber, Aina; anaiak-arebak: Pabito eta Piti Zubizarreta, Benito eta Kontxu Imaz, Eduardo (I), Zukene eta Jose Mari Zugasti, Jose Mari, ezkon anaiak-arebak: Prontxio, Jexux eta Espe, Karmele eta Josi; osaba-izebak, ilobak, lehengusak eta gainerako ahizpak.

Haren aitaren alde-otziz bat eskatzen dizugu, eta aurretik zaitzazkizuegu GAIER OSTEGUNA, asteleheneko ZAZPIETAN, MIKEL GOLIEN GERUAREN hitzen egingo den hitzera. Aiez aurretik, mila esker!

Milazabal, 2012ko otsailaren 16a

Hilabete Nagusia, 45-58  
Ghara: Sopua/Beaungo-GORRIKALDEKOHAN egingo da.

**ANTTON IRIZAR IMAZ**

**-Golien bego-**

Udaletxeko langileak  
**Beti gogoan**

Milazabal, 2012ko otsailaren 16a

**ANTTON IRIZAR IMAZ**

**-Golien bego-**

Agur eta onak Antton.

Mila proiektu buruan eta indarra sobera lagun lankide heri zerbizari ekintzale langile nekia ezina eta abertzale fina hutsune nabariko du izango heriak lagunok eskertzen dugu zu ezagutu izana hartazu gure omenezko zeresan handiko gizonea inik joan

**Herrigintza Taldeko zure lagunak**

Milazabal, 2012ko otsailaren 16a



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendari:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info.  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. Telefonoa: 943 67 36 49.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. Telefonoa: 112.
- **Iruztun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

**Garraio publikoa**

**RENFE**

- **Ohiko ordutegia** izango du.

**TSST**

- **23:00etatik 04:00etara orduro** ASTEASU-Zizurkil-Villabona-Irura-TOLOSA.
- **23:30etik 04:30era orduro** TOLOSA-Anoeta-Irura-Villabona-Zizurkil-ASTEASU (Santa Klaratik).

**TOLOSALDEA BUS**

- **00:00-02:00-03:30.** TOLOSA (Zumardi Txiki)-Amarotz-Ikaztegieta-Alegia-Amezketeta-TOLOSA.
- **01:00-02:45-04:15.** TOLOSA (Zumardi Txiki)-Amarotz-Ibarraldea-Berrobi-Eldua-Elduain-BERASTEGI.

**HIRIBUSA**

- Eguneko zerbitzua izango da, ohiko ibilbidearekin. Azken bidaia 22:00etan izango da.

**Irudia Tolosa**



**ELENA MUJIKAK IRABAZI DU IKT-REN SARIA**

Tolosaldea Igeriketa Kirol Taldeak argitu duenez, Gabonetan saldatuko txartelen irabazlea Elena Mujika izan da. Mujikak 750 euroko erosketara txartela eta Tolosako Fronton jatetxean bi lagun-er-

tzako afaria eskuratu ditu. Irudian, ezkerrean, Kar-mele Elola Tolosaldea Igeriketa Kirol Taldearen ordezkaria eta Elena Mujika ikusi daitezke. Igeriketa taldeak irabazlea zoriandu du. HITZA

**Agurrak**

**AGURRAK**

943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

**agurrak**

**Agenda**

**DEIALDIAK**

- **Anoeta.** Sendabelarren oinarriko ikastaroa antolatu du udalak. Amaia Bastarrikak emango du, otsailaren 23tik martxoaren 29rako ostegunetan, 17:00etatik 19:00etara. 50 euro balio du ikastaroak eta bihar da izena emateko azken eguna. Udaletxean goizez, liburutegian arratsaldean, edo kiroldegian eman daiteke.

**INAUTERIAK**

**TOLOSA**

- **09:13.** Etxe-berriko oinordekoen Udala Bandoa.
- **11:30.** Udala Txistulari Bandak Inauterietako Zortzikoa joz egingo du ohiturazko ibilbidea.
- **11:45.** Kabi-Alai elkarteak izendatutako Inauterizale Kutunaren aurkezpena, ondoren pregoia.
- **12:00.** Plaza Zaharrean, suzuria jaien hasiera iragartzeko.
- **12:00.** Pintxana eta Kabi-Alai txarangaren irteera.
- **12:30.** Txosnaguneko txupinazoa. Txistorra egongo da.
- **16:30.** Zezen plazan zezen festa, Pintxana eta Kabi-Alai txarangek alaitua, eta kalejira.
- **19:30.** Iturritxiki plazatik zezen suzkoa irtengo da. Antolatzailea: Ero Etxe Elkarte.
- **20:00.** Aurrera Kirol Elkartearen danborrada.
- VILLABONA-ZIZURKIL**
- **15:00.** Jesusen Bihotza ikastolako eta Fleming ikastetxe haurrak inauterietako jaialdia egingo dute. Lehenik kalejira eta dantza egingo dituzte, Iraunkorrrak txarangaren musikak lagunduta, eta ondoren merienda banatuko diete.
- **17:30.** Eskoletako ikasleek *El oso Yogui* filma ikusi ahal izango dute, doan, Gurean.

Inauterietan **hitza** egunero argitaratuko dugu!

Bizi inauterietan **hitza** rekin!

Sartu [tolosa.hitza.info](http://tolosa.hitza.info) webgunean eta **Inauterien atalean** informazio guztia izango duzu: egitaraua, albisteak, elkarrizketak, bideoak, bitxikeriak, garraio publikoaren inguruko informazioa ...

**GAUR txupinazoa zuzenean [tolosa.hitza.info](http://tolosa.hitza.info) webgunean!**